



# Kirolaren hastapen eredu hezigarriak

**Eka. 15 - Eka. 16 2021**

**Kod. H02-21**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa



**Edizioa**

2021

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Eka. 15 - Eka. 16 2021

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
**BBVA**



## **Azalpena**

**Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.**

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170008) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.**

### **Helburuak**

EAEko Eskola Kiroleko Programen diagnosi partekatu bat garatu.

Ezagutzera eman Eskola Kirolean ematen diren praktika onak.

Eskola Kiroleko Programak hobetzeko ezinbestekoak diren erronkak zehaztu.

### **Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak**



# Programa

2021-06-15

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Harkaitz Millan Etxezarreta</b> Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputado de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes <b>Juan Aldaz Arregui</b> UPV/EHU
09:25 - 10:00	“ Edad de iniciación al deporte y de especialización “ <b>Javier Yanci Irigoyen</b> UPV/EHU - Esta conferencia se hará en castellano
10:00 - 10:30	“Análisis de la práctica polideportiva en la iniciación deportiva “ <b>Oidui Usabiaga Arruabarrena</b> UPV/EHU - Hitzaldi hau euskaraz izango da
10:30 - 11:00	“Recomendaciones para el desarrollo del talento en la iniciación deportiva “ <b>Nagore Martinez Merino</b> UPV/EHU - Hitzaldi hau euskaraz izango da, Zoom-ez
11:00 - 11:30	“Debate “ <b>Begoña Irazu Irazusta</b> GFA/DFG - Hitzaldi hau euskaraz izango da
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Panel. Experiencias de interés para compartir y aprender “ <b>Itsaso Nabaskues</b> GFA/DFG - Esta conferencia se hará en castellano
	“Leintz Eskola Kirola “ <b>Susana Santor Martinez</b> Debagoiena - Hitzaldi hau euskaraz izango da
	“Modelo de Deporte Escolar Adaptado “ <b>Iñaki Ugarteburu Artamendi</b> Debagoiena - Hitzaldi hau euskaraz izango da
	“Zirimara “ <b>Beñat Larrañaga</b> Usurbil - Hitzaldi hau euskaraz izango da
	“Políticas de equidad “ <b>Pablo Murias</b> Irun - Esta conferencia se hará en castellano
12:40 - 13:00	“Transporte sostenible y encuentros “ <b>Jokin Agirre Asteasu</b> Oarsoaldea - Hitzaldi hau euskaraz izango da
13:00 - 13:30	“¿Cómo hemos llegado hasta aquí? Análisis de las experiencias desarrolladas en el programa de deporte escolar “ <b>Itsaso Nabaskues</b> GFA/DFG - Esta conferencia se hará en castellano

13:30 - 14:00 "Alternativas a las restricciones al deporte escolar en la pandemia"  
**Leyre Cano Chocarro** Psicopedagoga - Hitzaldi hau euskaraz izango da

---

## 2021-06-16

09:15 - 10:00 "Provision on Children's sport in Norway"  
**Mads Andreassen** Confederación Noruega de Deporte - Este ponente intervendrá Vía Zoom en inglés

---

10:00 - 10:30 "Bases de consenso sobre el desarrollo deportivo"  
**Alberto Dorado Suarez** Universidad de Castilla La Mancha - Este ponente intervendrá vía Zoom en castellano

---

10:30 - 11:00 "E2 Bases para el desarrollo del deporte escolar en Gipuzkoa"  
**Unai Asurmendi Echarte** DFA/DFG - Hitzaldi hau euskaraz/erderaz izango da / Esta conferencia se hará en euskera/castellano

---

11:00 - 11:30 "Eztabaida"  
**Zuriñe Uranga García** DFA/DFG - Hitzaldi hau euskaraz/erderaz izango da / Esta conferencia se hará en euskera/castellano

---

11:30 - 12:00 Atsedena

---

12:00 - 12:30 "Eskola kirolaren Erronka Ekitaktiboak"  
**Juan Aldaz Arregui** UPV/EHU - Esta conferencia se hará en castellano

---

12:30 - 13:30 Eztabaida eta ondorio nagusiak. Eztabiada euskaraz/erderaz izango da / El debate se hará en euskera/castellano

---

## Zuzendaritza



### **Goizane Alvarez Irijoa**

Diputación Foral de Gipuzkoa

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari nagusia. Zuzenbidean lizentziatua. Enpresako Abokatutzako Masterra.



### **Juan Aldaz Arregui**

UPV/EHU, Profesor

---

Soziologiako doktorea eta Programa eta Politika Publikoen Ebaluazioko Masterra naiz, eta Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko Irakasle agregatua. Nire ikerketa-ildo nagusien helburua kirol-fenomenoa aztertzea da, programa eta politika publikoen ikerketa ebaluatzailearen ikuspegitik eta ezagutza zientifikoa gizarte-erabilgarritasunarekin lotzen saiatzen den ikuspegi ulerkorrenekin.

## **Irakasleak**



### **Jokin Agirre Asteasu**

---

Hezkuntza Fisikoan Lizentziatutako Errenteriarra. Azken 25 urtetan Eskola Kirolean lanean hezitzaile, ikastetxeko koordinatzaile eta koordinatzaile pedagogiko arlotan. Oiartzungo eskola kiroleko koordinatzaile azken 11 urtetan, Oarsoaldeako Eskola Kirolaren estrukturaren barruan. Kirolaisi XXI-ko sortzaile eta bazkide.



### **Mads Andreassen**

---

Norvegiako Kirol Konfederazioko eta Norvegiako Batzorde Olinpikoko eta Paralinpikoko Jardueren Garapenerako burua.



### **Unai Asurmendi Echarte**

---

Heziketa Fisikoko Irakasletzan diplomatua, 20 urtetako esperientzia du eskola kiroleko koordinatzaile gisa. Arrasate Kirol Proiektuan (AKP) hasi zuen eskola kiroleko ibilbidea eta azken urteotan Leintz Eskola Kiroleko koordinatzaile arduraduna da. Ibilbide honetan, ISO 9000;2001 kalitate ziurtagiria ateratzeko prozesuan partaidetza aktiboa izan zuen eta 2006. urtean, 'Eskola Kirolaren antolaketa eta bere irakaskuntza' ISOa atera zuen. Heziketa fisikoko irakasle bezala ere aritu izan da hainbat urteetan.



## **Leyre Cano Chocarro**

---

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua, EHUko Heziketa Fisikoko Irakasletzan dipolmatua, Psikopedagogian lizentziatua eta Mondragon Unibertsitateko Kirol Erakundeen Kudeaketa eta Zuzendaritzan aditua. Hezkuntza eta eskola kirolaren munduan esperientzia anitzak bildu ditu urteetan zehar eskola kiroleko begirale eta koordinatzaile, aisialdiko begirale, saskibalo federatuko entrenatzaile, LHko tutore, Heziketa Fisikoko irakasle eta psikopedagoga lanetan jardunez. Azken urteetan, jolasa, artea eta gorputz adierazpena integratzen duten metodologia ludikoetan murgildu, prestatu eta lanean aritu da. Era berean, gaitasun sozial eta emozionalen garapenerako adimen emozionalean sakontzen eta lanean aritu da.



## **Alberto Dorado Suarez**

---

Alberto Dorado Suárez, es profesor de Gestión Deportiva en la Facultad de Ciencias del Deporte de la Universidad de Castilla-La Mancha y de Enseñanza Secundaria Obligatoria en el IES Princesa Galiana de Toledo. Se licenció en Educación Física por la Universidad de La Coruña y es Doctor en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte por Universidad de Castilla-La Mancha. Desde la realización de su tesis doctoral sobre la gestión de la calidad en los servicios deportivos municipales y su trabajo como Jefe de Servicio de Promoción Deportiva en la Dirección General de Deportes de Castilla-La Mancha, durante quince años, se especializó en la promoción de la actividad física y el deporte orientada a la salud y en el desarrollo de proyectos y programas en el ámbito comunitario. Ha sido Presidente de la AEISAD desde el año 2008 al 2012. Sus principales líneas de investigación, que desarrolla en el Grupo PAFS (UCLM), se orientan hacia el desarrollo de activos para la promoción de la actividad



## **Begoña Irazu Irazusta**

---

Lan Harremanetan Diplomaturia (1989). Gipuzkoako Foru Aldundian 1983tik eta, zehazki, kirol arloko kirol teknikaria 2006tik. Eskola Kiroleko esparruan 2018tik orain arte.



## Beñat Larrañaga

---

Irakaskuntzan diplomatua EHUn eta Goi Mailako zikloa futboleant. Usurbilgo Udarregi ikastolan eskola kiroleko koordinatzaile eta hezitzaile moduan aritu ondoren, 10 urtez irakasle Udarregin bertan. Lehen Hezkuntzako ikasketa buru hiru urtetan eta Usurbilgo eskola kirolaren eraldaketan, Zirimara proiektuaren lan taldeko kide. Gaur egun, Usurbilgo Udaleko zinegotzi eta Gipuzkoako zein Euskadiko futbol federazioetako zuzendaritzako kide.




### **Nagore Martinez Merino**

UPV/EHU

---

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua eta doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle atxikia (Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktikaren Saila). Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldeko (GIKAFIT) ikertzailea. "LGTBI, educación física y deporte" ikerketa sareko kidea.



### **Harkaitz Millan Etxezarreta**

Donostiako Udala

---



### **Pablo Murias**

---

Soin Hezkuntzan lizentziaduna Gasteizko SHEEn (2000) eta Kirol Erakundeen Kudeaketa eta Zuzendaritzan aditua Mondragon Unibertsitatean (2009). Gaur egun, 2016ko urtarriletik, Irungo Udaleko kirol teknikaria da. Gipuzkoako eskola kirolaren eremuari oso lotuta dagoen ibilbide profesionala du, eta zeregin hauek egin ditu: Oarsoaldeko eskola-kirolaren koordinatzaile nagusia 6 urtez, Eskola-kiroleko begiraleen ikastaroko praktiken tutore arduraduna, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren eskola kiroleko ikastaroetan irakasle lana, ea.





## **Itsaso Nabaskues**

---

Alor akademikoari dagokionez, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietan doktorea (2020). Erasmus Mundus Master in Adapted Physical Activity (2013-2015) eta Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntzako Masterrak (2018-2019) burutuak. Lan esperientziari dagokionez, egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zerbitzuko teknikaria (2018 geroztik).



## **Iñaki Ugarteburu Artamendi**

Bergarako Udala

---

Iñaki Ugarteburu Artamendi, Magisteritza ikasketak EHUan, 1980-83 eta Soin Hezkuntza lizentziatura, Madrileko INEFen 1983-88. Bergarako Udal kirol teknikaria 1989. urtetik. 2003tik 2011ra Gipuzkoako Foru Aldundiko, Kiroletako Zuzendari Nagusia. KAIT (Kirol arloko iritzi taldea) Asociación Vasca de gestores del deporte, Presidentea 2019. urtetik



## **Zuriñe Uranga García**

Gipuzkoako Foru Aldundia, Erdi mailako teknikaria

---

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatua (2010-2014) eta Jarduera Fisiko eta Kirol Animazioko Goi-mailako teknikaria (2008-2010). Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuko erdi mailako teknikaria 2018tik.




## **Oidui Usabiaga Arruabarrena**

Universidad del País Vasco UPV/EHU

---

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol fakultateko irakaslea (Gorputz eta Kirol Hezkuntza saila). Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldeko (GIKAFIT) ikertzailea. Akzio motorraren behaketa (LOAM) laborategiko koordinatzailea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Masterreko irakaslea. "LGTBI, educación física y deporte" ikerketa sareko kidea.



## **Javier Yanci Irigoyen**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako doktorea. Irakasle titularra Gorputz eta Kirol Hezkuntza Sailean, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Masterreko arduraduna (UPV/EHU). Portaera motorreko laborategiko arduraduna (UPV/EHU). Universidad, Sociedad, Empresa 2020-2022 "Muévete" proiektuko ikertzaile nagusia. Metodo mistoaren ikuspegia errendimenduen analisisian (entrenamenduan eta lehiaketan), elite eta akademiako kirolean. GIKAFIT ikerketa taldeko kidea (UPV/EHU). Research in Sports Medicine, International Journal of Clinical Neurology and Brain Research eta Sports Science & Medicine Journal aldizkari argitalpen-batzordeko kidea. Kanpoko ikuskatzailea estatuko eta nazioarteko 40 aldizkari zientifikotan baino gehiagotan. EHUko Gizakiekin Ikertzeko Etika Batzordeko kidea (CEISH) (2014-2018). 180 artikulua zientifiko baino gehiago argitaratu ditu Estatuko/nazioarteko aldizkarietan eta 20 liburuetan



## **Susana Santor Martinez**

Heziketa Fisikoko Irakasletzan diplomatua, 20 urtetako esperientzia du eskola kiroleko koordinatzaile gisa. Arrasate Kirol Proiektuan (AKP) hasi zuen eskola kiroleko ibilbidea eta azken urteotan Leintz Eskola Kiroleko koordinatzaile arduraduna da. Ibilbide honetan, ISO 9000;2001 kalitate ziurtagiria ateratzeko prozesuan partaidetza aktiboa izan zuen eta 2006. urtean, 'Eskola Kirolaren antolaketa eta bere irakaskuntza' ISOa atera zuen. Heziketa fisikoko irakasle bezala ere aritu izan da hainbat urteetan.

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2021-02-08 ARTE</b>	<b>2021-06-15 ARTE</b>
GONBIDATUAK	0 EUR	-
<a href="#">OROKORRA</a>	-	77,00 EUR
<a href="#">MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA</a>	-	65,00 EUR
<a href="#">MATRIKULA EXENTZIOA</a>	-	54,00 EUR
<a href="#">IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA</a>	-	65,00 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2021-02-08 ARTE</b>	<b>2021-04-05 ARTE</b>	<b>2021-06-15 ARTE</b>
GONBIDATUAK	-	0 EUR	-
<a href="#">OROKORRA</a>	-	-	77,00 EUR
<a href="#">MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA</a>	-	-	65,00 EUR
<a href="#">MATRIKULA EXENTZIOA</a>	-	-	54,00 EUR
<a href="#">IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA</a>	-	-	65,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa